

**MODELO B****LEHENENGO ARIKETA, LEHENENGO ZATIA  
TEST-GALDETEGIA (GAI-ZERRENDIA OROKORRA)**

- 1. Konstituzioak honako hauek aldarrikatzen ditu antolamendu juridikoaren balio nagusitzat:**
  - a. Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
  - b. Askatasuna, justizia eta lehia askea.
  - c. Askatasuna, berdintasuna eta aniztasun politiko eta sindikala.
  - d. Askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna.
  
- 2. Espainiako nazioa osatzen duten nazionalitate eta herrialdeei dagokienez, zer aitortu eta bermatzen du konstituzioak?**
  - a. Autonomia eskubidea.
  - b. Horien arteko elkartasun eskubidea, baina ez autonomia eskubidea politikoki ulertua.
  - c. Askatasunez federatzeko edo konfederatzeko eskubidea.
  - d. Autodeterminazio askerako eskubidea.
  
- 3. Baieztapen hauetako bat OKERRA da. zein?**
  - a. Konstituzioak onartzen du ezkontza desegin ahal izango dela.
  - b. Konstituzioak ezartzen du gizonek eta emakumeek berdintasun juridiko osoz ezkontzeko eskubidea dutela.
  - c. Konstituzioak Legearen esku uzten du ezkontideen eskubideen eta betebeharren zehaztapena.
  - d. Konstituzioak ezartzen duenez, gizonek eta emakumeek adin nagusitasunera heltzean lortzen dituzte ezkontzeko adina eta gaitasuna.
  
- 4. Eskariak egiteko eskubidea:**
  - a. Espainiarren alde onartuta dago Konstituzioaren 30. artikuluan.
  - b. Kasu jakin batzuetan erabili ahal izango da banaka.
  - c. Beti idatziz erabili beharko da.
  - d. Ezingo da taldeka erabili.
  
- 5. Ingurumenari dagokionez:**
  - a. Eskubide gisa aitortuta dago Konstituzioaren 44. artikuluan.
  - b. Konstituzioak ez du ezartzen hura zaintzeko betebeharra.
  - c. Ingurumen eskubidea oinarrizkoa da pertsonentzat.
  - d. Guztion eskubidea da gizabanakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea.

**MODELO B**

- 6. Konstituzioan kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteari buruz ezarrita dagoenaren arabera, legeak arautuko du:**
- Barne merkataritza.
  - Kanpo merkataritza.
  - Zerbitzu publikoak adierazteko araubidea.
  - Kexak eta erreklamazioak adierazteko araubidea.
- 7. Noiz sartu zen indarrean konstituzioa?**
- Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.
  - 1978ko abenduaren 27an.
  - 1978ko abenduaren 29an.
  - Diputatuen Kongresuak eta Senatuak baterako saio batean onartu zutenean.
- 8. Zein da hezkuntzaren helburua?**
- Giza nortasuna oso-osorik garatzea, Eskola Kontseilu Nazionalak Ikasleen Guraso Elkarte Nazionalak eskatuta onartutako hezkuntza planen arabera.
  - Giza nortasuna oso-osorik garatzea, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta kultura eskubideak eta askatasunak errespetatuz.
  - Giza nortasuna oso-osorik garatzea, Eskola Kontseilu Nazionalak ezarritako hezkuntza ildoekin bat etorruta.
  - Giza nortasuna oso-osorik garatzea, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarrizko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.
- 9. “Administrazio-Herrikidetasuna” kontzeptuak, euskal herriaren autonomia estatutuaren 7. artikuluan jasoak, hau esan nahi du:**
- Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen foru legediaren mende egotea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legedi zibilaren mende egotea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritakoa izatea.
  - Estatuko Lege Orokorren mendea egotea.
- 10. Zer urtetan onartu zen euskal herriaren autonomia estatutua?**
- 1978an.
  - 1979an.
  - 1980an.
  - 1981ean.

**MODELO B****11. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetako bakoitzak, erkidegoaren baitan:**

- a. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde ahal izango ditu.
- b. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak berrezarri ahal izango ditu, hala badagokio.
- c. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak eguneratu ahal izango ditu, hala badagokio.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**12. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Herriko herritarrek:**

- a. Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea dute.
- b. Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko betebeharra dute.
- c. Gaztelania eta euskara jakiteko eskubidea eta erabiltzeko betebeharra dute.
- d. Gaztelania eta euskara jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.

**13. Justizia Administrazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku egongo dira:**

- a. Botere Judizialaren eta Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren Lege Organikoek Gobernuari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.
- b. Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.
- c. Botere Judizialaren Lege Organikoek eta Lurralde Historikoen Legeek Eusko Jaurlaritzari aitortu, gorde edo egokitzen dizkioten eskumenak.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**14. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, lege bidez garatu eta betearazteko eskumenen kasuan:**

- a. Estatuari dagokio oinarritzko arauak ezartzea eta Autonomia Erkidegoari, berriz, horiek lege bidez garatzea.
- b. Estatuari dagokio oinarritzko arauak ezartzea eta Lurralde Historikoari, berriz, horiek lege bidez garatu eta betearaztea.
- c. Estatuari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, horiek arau bidez garatzea.
- d. Autonomia Erkidegoari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Lurralde Historikoei, berriz, horiek arau bidez garatzea.

**15. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera (10. artikulua), eskumen hauetako zein da esklusiboa?**

- a. Lurraldearen eta itsasbazterraren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
- b. Ingurumena eta ekologia.
- c. Kredituaren antolamendua, bankuak eta aseguruak.
- d. Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.

**MODELO B**

- 16. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, eskumen hauetako zein partekatzen da estatuarekin?**
- Tokiko erregimena.
  - Turismoa eta kirola.
  - Estatuaren titulartasunekoak ez diren artxiboak, liburutegiak eta museoak.
  - Euskal Herriaren estatistika bere helburu eta eskumenetarako.
- 17. Nork osatzen dute udalerrri bateko biztanleria?**
- Udal erroldan inskribatuta dauden eta ez dauden pertsonak.
  - Udal erroldan inskribatuta dauden pertsonak.
  - Helbideratuek, behin-behineko egoiliarrek eta atzerritarrek.
  - Udal erroldan inskribatuta dauden adinez nagusiek.
- 18. Tokiko araubidearen oinarrien legearen arabera, eskumen hauetako zein dagokio udalbatzari?**
- Udal zerbitzuak eta udal obrak zuzentzea, ikuskatzea eta sustatzea.
  - Alkateordeak izendatzea.
  - Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
  - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 19. Toki araubidearen oinarrien legearen arabera, biztanleria handiko udalerrien antolamendu araubidea aplikatuko zaie:**
- 50.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
  - 150.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
  - Probintziako hiriburu, autonomietako hiriburu edo autonomia erakundeen egoitza diren udalerriei, bertako legebiltzarrek horrela erabakitzen badute, udal bakoitzaren ekimenez.
  - 75.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
- 20. Adierazi zein den erantzun OKERRA. Toki araubidearen oinarrien legearen 133. artikulua arabera, ekonomiaren eta finantzen kudeaketak irizpide hauek beteko ditu:**
- Zerbitzuen kostuen jarraipena ez da sartzen eskakizun bezala.
  - Toki ogasunak arautzen dituen Legean kontabilitateari buruz jasotako aurreikuspenetara lotu behar da nolnahi ere kontabilitatea.
  - Helburu bezala aurrekontuaren egonkortasuna zaintzea, hori arautu dezan legedian xedatutakoarekin bat etorritik.
  - Ekonomiaren eta finantzen kudeaketaren kontabilitatea eta ikuskapena banatuta izatea

**MODELO B****21. Alkateak eta zinegotziak osatuta, udalbatza edo osoko bilkura:**

- a. Herritarrek udal gobernuan duten ordezkaritza politikoaren organo gorena da.
- b. Alkateak egingo du osoko bilkurarako deia eta bera izango da buru, Lege honetan eta hauteskunde legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- c. Osoko bilkurak erregelamendua egingo du beretzat, eta organikoa izango da.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

**22. Alkateak eskuordetu daitezkeen eskumenak eskuordetu ahal izango ditu:**

- a. Dekretu bidez.
- b. Zerbitzu aginduen bidez.
- c. Bando bidez.
- d. Legegintzako dekretu bidez.

**23. Adierazi eskumen hauetako zein ez den tokiko gobernu batzarrarena:**

- a. Alkateordeak eta barrutietako lehendakariak izendatzea eta kargutik kentzea.
- b. Aurrekontu proiektua onestea.
- c. Edozein lizentzia mota ematea.
- d. Lanpostuen zerrenda onestea.

**24. Tokiko gobernu batzarrak 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri guztietan dago, eta biztanle gutxiagokoetan:**

- a. Konstituzioak hala xedatzen badu.
- b. Autonomia Estatutuak hala xedatzen badu.
- c. Bertako Erregelamendu Organikoan hala xedatuta badago edo Udalbatzak hala erabakitzen badu.
- d. Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeak hala xedatzen badu.

**25. Bilboko udaleko araudi organikoaren arabera, bozeramaileen batzordea:**

- a. Udalbatzako eztabaida organoa da.
- b. Udalbatzak eta Tokiko Gobernu Batzordeak kontsultarako duten organoa da.
- c. Udalbatzako presidenteak kontsultarako duen organoa da.
- d. Udalbatzako bilerak kudeatzeko organoa da.

**26. Arau nagusi gisa, Bilboko udaleko udalbatzak honela hartuko ditu erabakiak:**

- a. Bertaratutako kideen gehiengo soilaren bidez.
- b. Gehiengo osoaren bidez.
- c. Gehiengo kualifikatuaren bidez.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**MODELO B**

**27. Bilboko udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, aldi berean saileko zuzendaritzak antolatu ahal izango dira:**

- a. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sekzioetan, negoziatuetan eta laguntza unitateetan.
- b. Zuzendariordetzetan, sailataletan, sekzioetan eta beheagoko mailako edo antzeko beste unitate batzuetan.
- c. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan, sekzioetan eta kudeaketa unitateetan.
- d. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan eta negoziatuetan.

**28. Bilboko udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, udalerria barrutitan banatzea:**

- a. Gobernu Batzordeari dagokio.
- b. Udalbatzari dagokio.
- c. Alkateari dagokio.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**29. Bilboko udaleko udalbatzaren araudi organikoaren arabera, funtzio hauetako zein ez dagokio udalbatzako idazkari nagusiari?**

- a. Udalbatzaren saioak deitzea eta horien buru izatea.
- b. Udalbatzaren eta bertako batzordeen fede publikoa ematea.
- c. Osoko bilkuraren ebazpenak jakinaraztea, argitaratzea eta betearaztea.
- d. Udalbatzari eta batzordeei lege aholkularitza ematea.

**30. Bilboko udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, tokiko gobernu batzordeak:**

- a. Udalbatzak eskuordetutako eginkizun politiko, administratibo eta betearazleak beteko ditu.
- b. Legearen arabera dituen eginkizun betearazle eta administratiboak beteko ditu.
- c. Udalbatzak eskuordetutako eginkizun tekniko, politiko eta administratiboak beteko ditu.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**31. Bilboko udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, zuzendaritza organoek hartuko dituzten erabaki administratiboak:**

- a. Organo zehatzaren akordioak izango dira.
- b. Organo zehatzaren ebazpenak izango dira.
- c. Organo zehatzaren dekretuak izango dira.
- d. Organo zehatzaren aginduak izango dira.

**MODELO B**

- 32. Bilboko udaleko gobernuari eta administrazioari buruzko araudi organikoaren arabera, aholkularitza juridikoak aldez aurretiko eta nahitaezko txostena egin beharko du honako gai haueetan:**
- Ordenantza fiskalen eta araudien proiektuak.
  - Hirigintza eta Ingurumen Sailaren hitzarmenak.
  - Izaera orokorreko gaiei buruzko erabakiak.
  - Kaltegarritzat jotzeko prozeduretako ebazpen proposamenak.
- 33. 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena, indarrean sartu zen:**
- Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.
  - Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 20 egunera.
  - Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 6 hilabetera.
  - Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera.
- 34. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen arabera, aukera hauek zein sartzen da sektore publikoan?**
- Estatuaren Administrazio Orokorra.
  - Autonomia erkidegoen administrazioak.
  - Toki administrazioa osatzen duten entitateak.
  - Aurreko guztiek eta besteren batek osatzen dute Sektore Publikoa, aipatutako Legearen arabera.
- 35. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen zein artikulutan arautzen dira prozeduraren instrukzio egintzak?**
70. artikuluan.
  75. artikuluan.
  78. artikuluan.
  84. artikuluan.
- 36. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen 40. artikulua arabera, zein da administrazio-egintzak ematen direnetik jakinarazteko dagoen epea:**
- Zazpi egun.
  - Hamar egun.
  - Hamabost egun.
  - Hogei egun.
- 37. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen 41. artikulua arabera, jakinarazpenak, ahal dela, honela egingo dira:**
- Posta bidez.
  - Telefonoz.
  - Bitarteko elektronikoen bidez.
  - Administrazioerentzako bitartekorik azkarrenaren eta ekonomikoaren bidez.

**MODELO B**

- 38. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, egintza deuseztagarrien kaltegarritasun deklarazioa ezingo da egin administrazio-egintza eman zenetik epe batean. Zein da epe hori?**
- Sei hilabete.
  - Urtebete.
  - Bi urte.
  - Lau urte.
- 39. Berrikuspen-errekurtso berezia soilik egin daiteke:**
- Administrazio-bidean irmoak diren egintzen aurka.
  - Administrazio-bidea amaitzen duten egintzen aurka.
  - Izapide-egintzen aurka, hauek gaiari buruzkoak badira.
  - Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenen aurka.
- 40. Zerbait ez egiteko edo jasateko betebeharrak guztiz pertsonala ezartzen duten administrazio-egintzak betearaz daitezke:**
- Herritarrak zuzenean derrigortuz, legeak hori espresuki baimentzen duen kasuetan.
  - Ondarearekiko premiamenduz.
  - Betearazpen subsidiarioz.
  - Hertsatzeko isunaz.
- 41. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 69. artikulua arabera, funtzionarioek eskubidea izango dute:**
- Karguan eta beren lanpostuan eta lan-izendapenekoan jarraitzekoa, lege honetan adierazten diren mugen eta baldintzen barruan.
  - Karguan eta beren lanpostuan eta lan-izendapenekoan jarraitzekoa, mugarik gabe.
  - Karguan jarraitzekoa, baina lanpostuan eta lan-izendapenekoan jarraitzekoa ez.
  - Aurrekoetako bat ere ez da zuzena
- 42. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 71. artikulua arabera, baimenak eman ahal izango dira:**
- Funtzionarioa kide deneko eta Kidego edo Eskalari dagozkion egitekoekin artezko lotura duten gaiei buruzko ikasketak egiteko.
  - Norbere gauzatarako, inolako ordainketarik gabe.
  - Administrazioaren beraren edo beste batzuen Kidego edo Eskalatan sartzeko jarritako ikastaro berezietan edo praktika-aldietan parte hartzeko.
  - Aurreko guztiak zuzenak dira.



**MODELO B**

- 43. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 77. artikulua arabera:**
- Oinarrizkoak eta osagarrizkoak dira funtzionarioen lansariak.
  - Oinarrizkoak, osagarrizkoak eta apartekoak dira funtzionarioen lansariak.
  - Oinarrizko soldatak eta osagarriak dira funtzionarioen lansariak.
  - Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
- 44. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 73. artikulua arabera, funtzionarioen eginkizunak dira:**
- Administrazioa josten dutenekiko tratu egokia, Administrazioaren aurrean egin behar dituzten izapideak kudeatzeko laguntzarik oparoena eskainiz.
  - Beren egitekoak direla eta, ezagutu ditzaketen gaiak dagokion neurrian isilpean gordetzea eta, bereziki, legez isilpeko edo erreserbatutzat aldarrikaturiko gaiak dagozkienetan.
  - Ezarrita dauden lanorduak eta ordutegia zorrotz betetzea.
  - Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 45. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 73. artikulua arabera, funtzionarioen eginkizunak dira:**
- Bere banako espedientea ezagutu eta han ez sartzea.
  - Bere eskubide eta askatasun sindikalak ez erabiltzea.
  - Izendatuak dituzten betebeharrak ongi burutu eta guztien interesak inpartzial eta objetiboki zerbitzatzeta.
  - Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 46. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 83. artikulua arabera, hutsegite oso larriak dira:**
- Administratuak aintzakotzat ez hartzeagatiko hutsegite larria.
  - Arraza, sexu, erlijio, hizkuntza, iritzi, jaiolen edo auzo edo beste edozein inguruabar sozial edo pertsonalen ondoriozko bereizkeria dakarren jardura oro.
  - Goragokoen zerbitzuei buruzko aginduak edo jarraibideak ez betetzea.
  - Lantokietan iskanbilak sortzea edo horietan parte hartzea.
- 47. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 69. artikulua arabera, funtzionarioek eskubidea izango dute:**
- Etenik gabeko lanbide-gaikuntzarako.
  - Administrazio-karrerarako eta barne-mailatan gora egiteko.
  - Bere espedientea nahi bezala ezagutu eta ikusteko.
  - Aurreko guztiak zuzenak dira.

**MODELO B**

- 48. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 89. artikulua arabera, hutsegiteek indarra galtzeko epeak hauek dira:**
- Oso hutsegite larriek sei urtera galduko dute indarra, larriek, bi urtera eta, arinek, hilabetera.
  - Oso hutsegite larriek hamar urtera galduko dute indarra, larriek, sei urtera eta, arinek, urtebetera.
  - Oso larriek ez dute inoiz indarrrik galtzen.
  - Zigorrek galtzen dute indarra, hutsegiteek ez.
- 49. Euskararen eta gaztelaniaren erabilera euskal herriko autonomia erkidegoaren lurraldean, hemen xedatutakoaren arabera izango da:**
- 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
  - 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa eta lege hau garatzeko Legebiltzarrak eta Jauriaritzak eman ditzaten gainerako xedapenak.
  - 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa eta lege hau garatzeko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek xedatua.
  - Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 50. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarritzko legearen 2. artikulua arabera, zein da euskal herriko hizkuntza propioa:**
- Euskara.
  - Euskara, baina gaztelania ere erabili daiteke hizkuntza ofizial bezala.
  - Euskara, eta hizkuntza ofiziala ere bada, gaztelaniarekin batera.
  - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 51. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarritzko legearen arabera, euskal autonomia erkidegoko hizkuntza ofizialak dira:**
- Gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra.
  - Euskara da hizkuntza ofizial bakarra.
  - Euskara eta gaztelania.
  - Erantzun guztiak okerrak dira.
- 52. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarritzko legearen arabera, euskal herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:**
- Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.
  - Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
  - Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.
  - Erantzun guztiak zuzenak dira.

**MODELO B**

**53. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko legearen arabera, administrazioaren jakinarazpenek eta adierazpenek:**

- a. Euskaraz egon beharko dute nahitaez eta gaztelaniaz hautaz.
- b. Gaztelaniaz egon beharko dute nahitaez eta euskaraz hautaz.
- c. Bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**54. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko legearen arabera, helduen euskalduntzeari eta euskaldunen alfabetatzeari buruzko araubidea finkatuko du:**

- a. Eusko Jaurlaritzaren dekretuak.
- b. Eusko Legebiltzarraren legeak.
- c. Eusko Jaurlaritzaren legegintza dekretuak.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**55. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko legearen arabera, herritar guztiak justizia administrazioarekiko harremanetan:**

- a. Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
- b. Euskal Herriko hizkuntza propioaz baliatu ahal izango dute, eta gaztelaniara itzultzeko eskatu.
- c. Beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**56. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko legearen arabera, baieztapen hauetako zein da zuzena?**

- a. Herri-aginteak herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzen saiatuko dira.
- b. Euskal Herriko herritar guztiak hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dute, nahiz ahoz nahiz idatziz.
- c. Herri-aginteeek hizkuntza eskubideak ziurtatuko dituzte nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz hemendik kanpo.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**57. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legea da:**

- a. 3/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- b. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
- c. 3/1996 Legea, azaroaren 8koa.
- d. 31/1996 Legea, azaroaren 8koa.

**MODELO B**

- 58. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legearen xedea da:**
- Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatuz.
  - Laneko istripuen estatistikak sustatu eta garatzea.
  - Langileen segurtasuna garatzea, neurri zuzentzaileak eta zehatzaileak ezarriz.
  - Printzipio orokorrak ezartzea, enpresarietarako arriskudun lanak kendu ditzaten.
- 59. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legearen arabera, zein da lanetik eratorritako arriskuak saihesteko edo horiek murrizteko enpresako jarduera-fase guztietan ezarritako jardueren eta hartutako neurrien multzoa:**
- Langileen prebisioa.
  - Prebentzioa.
  - Langileen babesak.
  - Lan-ekipamendua.
- 60. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legearen arabera, zer da laster gerta daitekeena, horretarako arrazoiak izateagatik, bai eta langileen osasunari kalte handia eragin diezaiokiena ere:**
- Lanak eratorritako kalteak.
  - Lan-arrisku larri eta hur-hurrekoa.
  - Prebentzioa.
  - Langileen babesak.
- 61. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legearen arabera, zer da lan baldintza hobeak sustatzea, langileen laneko segurtasunaren eta osasunaren babesak gehitzeko:**
- Laguntza-arloko politika.
  - Prebentzio-arloko politika.
  - Laneko giroa hobetzearen arloko politika.
  - Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.
- 62. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legearen xedatutakoaren arabera, segurtasun eta osasuneko batzordea eratuko da honako enpresa edo lantoki guztietan:**
- 200 langile edo gehiago dituztenetan.
  - 150 langile edo gehiago dituztenetan.
  - 100 langile edo gehiago dituztenetan.
  - 50 langile edo gehiago dituztenetan.

**MODELO B**

- 63. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legean xedatutakoaren arabera, Europako zein zuzentarau bildu da Espainiako zuzenbidera, azaroaren 8ko 31/1995 legearen bidez?**
- 2006/123/EE Zuzentaraua.
  - Langileen Estatutua.
  - 89/391/EEE Zuzentaraua.
  - Laneko Segurtasun eta Higieneko Ordenantza Orokorra.
- 64. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legean xedatutakoaren arabera, enpresaburuak langileak kontsultatu beharko ditu, beharrezko aurrerapenarekin, ondoko hauek direnean erabaki beharrekoak:**
- Enpresako ekoizpen-prozesuaren planifikazioa eta antolaketa.
  - Merkataritza-sarearen marketin- eta garapen-jardueren antolaketa eta garapena.
  - Prebentzio-arloko prestakuntzaren proiektua eta antolaketa.
  - Ingurumenaren babes-arloko informazioaren proiektua eta antolaketa.
- 65. Kontratazio publikoei buruzko araudi berria urte honetakoa da:**
- 2014.
  - 2013.
  - 2018.
  - 2017.
- 66. Kontratazio publikoari buruzko araudi berria noiz sartu zen indarrean:**
- 2015ean.
  - 2016an.
  - Ez dago indarrean oraindik.
  - 2018an.
- 67. Markatu erantzun OKERRA:**
- Eliza ez da jotzen esleitzeko gaitutzat Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.
  - Alderdi politikoak botere esleitzailak dira Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.
  - Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten mutuak ez dira botere esleitzailak.
  - Foru aldundiak sektore publikoaren partetzat joko dira beren kontratazio jarduerari dagokionez.

**MODELO B****68. Xedetzat jarduera baten garapenean egiteko prestazioak dituzten kontratuak**

- a. Kontratu mistoak dira.
- b. Obra-kontratuak dira.
- c. Hornidura-kontratuak dira.
- d. Zerbitzu-kontratuak dira.

**69. Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria:**

- a. Gorte Nagusiek onartu zuten.
- b. Europako Parlamentuak onartu zuen.
- c. Nazioko gobernuak onartu zuen.
- d. Europako Batzordeak onartu zuen.

**70. Hornidurako eta segidako zerbitzuetako kontratuek:**

- a. Gehienez, bost urteko iraupen epea izango dute.
- b. Gehienez, hamar urteko iraupen epea izango dute.
- c. Gehienez, sei urteko iraupen epea izango dute.
- d. Gehienez, hiru urteko iraupen epea izango dute.

**71. Kontratuen formalizazioa dagokion kontratuarekin argitaratu beharko da**

- a. Kontratua burutu ondoren, hamabost egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.
- b. Kontratua burutu ondoren, hiru egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio organoko kontratatzailearen profilean.
- c. Kontratua burutu ondoren, bost egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio organoko kontratatzailearen profilean.
- d. Kontratua burutu ondoren, zortzi egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio organoko kontratatzailearen profilean.

**72. Obren eta zerbitzuen emakidetan epe orokorra soilik kasu hauetan murriztu ahal izango da:**

- a. Aldez aurreko informazioko iragarkia bidalia izanez gero.
- b. Proposamenen aurkezpenarako epe orokorra ezin praktikatzkoa izanez gero urgentziatzko egoera bat delako.
- c. Kontratazio organoak eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea onartuz gero.
- d. Ezin da epe hori murriztu ezein kasutan.

**73. Biztanleria handiko udalerrri batean, enplegu publikorako eskaintza honek onetsi behar du:**

- a. Udalbatzak.
- b. Langile Batzordeak.
- c. Alkateak.
- d. Tokiko Gobernu Batzarrak.

**MODELO B****74. Honako baieztapen hauetatik, zein da egia?**

- a. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- b. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- c. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat, bere langileen ausazko birbanaketaren bidez.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**75. Langileen barne promozioko eta prestakuntzako neurriak eta derrigorrezko mugikortasunekoak giza baliabideen ordenazio plan batean hitzar daitezke?**

- a. Ez.
- b. Bai.
- c. Bai, derrigorrezko mugikortasuna izan ezik.
- d. Bai, prestakuntza profesionala izan ezik.

**76. Enplegu publikorako eskaintzaren onespentak konprometitutako lanpostuei dagozkien aukeraketa prozesuetarako deialdiak egiteko betebeharra ekarriko du...**

- a. ... eta are % 5eko gehigarri bat ere.
- b. ... eta are % 10eko gehigarri bat ere.
- c. ... eta are % 3ko gehigarri bat ere.
- d. ... eta are % 7ko gehigarri bat ere.

**77. Langile berrien sarrerako deialdietan hutsik geratutako plazek:**

- a. Funtzionario izaera badutenen arteko alde zuzenaren aurreko lehiaketa egin beharra eskatuko dute.
- b. Ez dute funtzionario izaera badutenen alde zuzenaren aurreko lehiaketarik behar.
- c. Funtzionario izaera bi urte baino gutxiagoko antzintasunarekin dutenen arteko alde zuzenaren aurreko lehiaketa egin beharra eskatuko dute.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**MODELO B****78. Toki administrazioaren esparruan:**

- a. Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
- b. Langile guztien aukeraketa enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
- c. Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
- d. Langile guztien aukeraketa, hala funtzionarioena nola lan-kontratuko langileena, enplegu publikorako eskaintzaren arabera egin behar da, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, bermatuz, kasu guztietan, merituen eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.

**79. Langileen erregistroari dagokionez, toki erakundeek behar adina baliabide finantzario edo tekniko ez dutenean,**

- a. Autonomia Erkidegoek eta haiek soilik lagunduko diete.
- b. Estatuko Administrazio Orokorrak eta hark soilik lagunduko die.
- c. Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek lagunduko diete, 5.000 biztanle baino gutxiago edo 2.999.999 euro baino gutxiagoko aurrekontua baldin badute.
- d. Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek lagunduko diete.

**80. Toki administrazioko pertsonal guztiaren plantillak eta lanpostuak urtero finkatuko dira...**

- a. Tresna urbanistikoen bidez.
- b. Foru administrazioarekiko hitzarmenen bidez.
- c. Aurrekontuen bidez.
- d. Alkatetzaren ebazpenen bidez.



**MODELO B****ERRESERBAKO GALDERAK****81. Noren aurrean aurkezten da babes errekurtsua?**

- a. Edozein epaitegi edo auzitegiaren aurrean.
- b. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean.
- c. Konstituzio Auzitegiaren aurrean.
- d. Auzitegi Gorenaren aurrean.

**82. Konstituzioak aitortutako biltzeko eskubideari dagokionez, iraganbide publikoetako bileren eta kale agerraldi edo manifestazioen kasuan:**

- a. Ezingo dira inolaz ere debekatu, ezta arriskurik badago ere, baina, kasu horretan, segurtasun zerbitzu indartsua ezarri beharko da.
- b. Ez da beharrezkoa izango agintariei aurretiko baimena eskatzea, ezta jardueraren berri ematea ere.
- c. Pertsonentzako arriskua badaukarte bakarrik debekatu ahal izango dira.
- d. Debekatu egin ahal izango dira ordena publikoa asaldatzeko arrazoi oinarridunak badaude

**83. Adierazi hauetako zein den baieztapen zuzena euskal herriaren autonomia estatutuaren 9. artikulua araber:**

- a. Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan finkatutakoak dira.
- b. Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan finkatutakoak dira.
- c. Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Ekonomia Itunean finkatutakoak dira.
- d. Euskal Herriko herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak Lurralde Historikoen Legean finkatutakoak dira.

**84. Euskal herriaren autonomia estatutuaren 9. Artikulua araber, euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan:**

- a. Euskal herritarren eskubideen erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.
- b. Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.
- c. Euskal herritarren betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.
- d. Euskal herritarren eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.

**MODELO B****85. Toki araubidearen oinarrien legearen arabera, biztanleria handiko udalerrietan tokiko gobernu batzarrari dagokio:**

- a. Ordenantzen eta erregelamenduen proiektuak onartzea, organikoak barne, Udalbatza eta haren batzordeak arautzeko arauak salbuespen direla.
- b. Udalerriko politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea.
- c. Erregelamendu organikoak onartzea eta aldatzea.
- d. Udalerriz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea.

**86. Tokiko gobernu batzarreko idazkaritza zinegotzi den kideren batena izango, eta honek izendatuko du:**

- a. Udalbatzak.
- b. Alkateak.
- c. Tokiko Gobernu Batzarrak.
- d. Udalbatzako idazkari nagusiak.

**87. Bilboko Udaleko udalbatzaren araudi organikoaren xedea da:**

- a. Bilboko Udaleko Udalbatzaren, bertako batzordeen eta Tokiko Gobernu Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea.
- b. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita udaleko zinegotzien estatutua ezartzea ere.
- c. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita Udalbatza osatzen duten talde politikoen estatutua ezartzea ere.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**88. Bilboko Udaleko udalbatzaren araudi organikoaren 119. artikulua arabera, alkatearen aurkako zentsura mozioaren eta alkateak aurkeztutako konfiantza arazoaren bozketa publikoa izango da, eta:**

- a. Izenezko deialdiaren bidez egingo da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.
- b. Isilpeko bozketa bidez egingo da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.
- c. Eskua jasota bozkatuko da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**MODELO B**

- 89. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen arabera, arau orokor gisa, adierazi tokiko erakundeek zein hizkuntzatan izapidetuko dituzten administrazio prozedurak:**
- Gaztelaniaz.
  - Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntza koofizialetan.
  - Kasu honetan, dagokion legedi autonomikoan aurreikusitakora doituko da hizkuntzaren erabilera.
  - Kasu honetan, hizkuntzaren erabilera tokiko erakundeak aukeratuko du.
- 90. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen arabera, nori dagokio erabakitzea frogaldi bat hasiko dela, interesdunek alegatutako egitateak egiaztatzeko edo prozeduraren izaerak hala eskatzen badu?:**
- Hierarkian goragoko mailakoari.
  - Prozedurako interesdunei.
  - Prozeduraren instrukzio-egileari.
  - Zuzenak dira a) eta b) erantzunak
- 91. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 69. artikulua arabera, euskal administrazio publikoek funtzionarioei eskainiko diete:**
- Egitekoak betetzean beharrezko duten babesak.
  - Eskubideak betetzean beharrezko duten babes berezia eta beren betebeharrak betetzea.
  - Laneko arriskuen prebentzio arloko neurri babesle bereziak eta apartekoak.
  - Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.
- 92. Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 78. artikulua arabera, oinarrizko lansariak dira:**
- Soldata eta lansari bereziak.
  - Hirurtekoak.
  - Ohiko lanalditik kanpo eskainitako ezohiko zerbitzuengatik jasotako lansariak.
  - Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.

**MODELO B**

- 93. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko legearen 14. artikulua arabera, baieztapen hauetako zein da zuzena?**
- a. Herri-agintek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.
  - b. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko administrazioi gainerako lanpostuetara sartzeko egin daitezkeen hautaprobetan hizkuntza ofizialen ezagupen-maila hartuko da kontutan merezimendu gisa, besteak beste.
  - c. Herri-agintek finkatuko dute zein lanpostutarako izango den derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea.
  - d. Erantzun guztiak zuzenak dira
- 94. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko legearen arabera, jaurkitzeko euskarazko irakaskuntzarako eskubidea gauzatzeko jarriko ditu:**
- a. Irakasleria gero eta euskaldunagoa lortzeko bitartekoak.
  - b. Euskara jakitea derrigorrezkoa izango den irakaspostu edo ikasgelak.
  - c. Irakasleen egoera ekonomiko gero eta hobea lortzeko bitartekoak.
  - d. Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.
- 95. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legerako lan-izaerako xedepenek izaera hau dute:**
- a. Galarazpen arauak.
  - b. Ordezkaritza arauak.
  - c. Jarduera arauak.
  - d. Aginduzko zuzenbide gutxieneko eta xedaezinak.
- 96. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legean xedatutakoaren arabera, enpresa baten lan-arriskuak prebenitzeko planak hauek izango ditu:**
- a. Antolaketa-egitura, erantzukizunak, eginkizunak.
  - b. Praktikak, prozedurak, prozesuak.
  - c. Baliabideak, enpresan arriskuak prebenitzeko ekintza gauza dadin.
  - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**MODELO B****97. Markatu erantzun OKERRA**

- a. Ezin dute zerbitzu publikoarekin kontraturik egin aldi baterako osatutako enpresari elkarteek.
- b. Klausula administratibo partikularren pleguak exigitu diezaieke obra-kontratuen esleipendun gertatzen diren iparramerikar enpresei Espainian sukurtsal bat irekitzea, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egotea.
- c. Sektore publikoarekin kontratuak egiteko, enpresariak egiaztatu beharko dute kaudimen ekonomiko eta finantzarioko gutxieneko baldintzak eta baldintza profesionalak betetzen dituztela.
- d. Pertsona juridiko diren enpresarien jarduteko gaitasuna eskritura edo eratze dokumentu bidez egiaztatuko da.

**98. Erregulazio harmonizatura lotutako kontratuei dagozkien prozedura murriztuetan, proposamenen aurkezpen epe orokorra nahikoa izango da proposamenak kontratuaren irismenaren eta konplexutasunaren arabera lantzeko:**

- a. Edozein kasutan ere ez da izango hogeita bost egun baino gutxiagokoa.
- b. Edozein kasutan ere ez da izango laurogei egun baino gutxiagokoa.
- c. Edozein kasutan ere ez da izango laurogeita hamar egun baino gutxiagokoa.
- d. Edozein kasutan ere ez da izango hogeita hamar egun baino gutxiagokoa.

**99. Enplegu publikorako eskaintzak edo haien antzeko beste tresna batek giza baliabideen planifikaziotik eratorritako neurriak eduki ahal izango ditu.**

- a. Gezurra.
- b. Egia, neurri horien artean ez baldin badaude lan-antolaketako sistemai eta lanpostuen egituren aldaketei buruzko aurreikuspenak.
- c. Egia.
- d. Gezurra, giza baliabideen planifikazioa Enplegu Publikorako Eskaintzak 1.000 lanpostu edo gehiagoko deialdia aurreikusten duen urte batean onartzen baldin bada izan ezik.

**100. Enplegu plan batek lanpostuak kentzen baldin baditu eta horren ondorioz funtzionario bat postu berri batean birkokatzen baldin bada, birkokatze horrek postu berriarekiko zer motatako atxikipena dakar?**

- a. Behin-behinekoa.
- b. Baldintzatua.
- c. Behin betikoa.
- d. Alternatiboa.

